


# ➤ **HEGO EUSKAL HERRIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA**

## **Argazkia datuetan**



2019ko irailaren 17an





## Egoera ekonomikoa:

### LAN MUNDUAN PREKARIETATEAK ETA POBREZIAK GORA

-Politika neoliberalen ondorioz administrazioen eta herritarren eskutan geroz eta baliabide ekonomiko gutxiago dago. Prekarietatea eta pobrezia ez dira inbertsio onak etorkizun ekonomikoari begira. Lan erreformen ondorioak nozitzen jarraitzen dugu:

#### Enplegua gero eta prekarioagoa

-Langabezia: **113.400** pertsona daude langabezian Hego Euskal Herrian. Oraindik ez gaude 2008ko neurrietan enpleguari dagokionean. Gazteen artean egoera kezagarria: **%23**ko langabezia tasa.

-Behin behinekotasuna handitu egin da

-Soldatapekoen 4tik 1 (**%25,4**) ebentuala. Emakumeak gehiago (**%27**) gizonak (**%24**) baino.

-Landunek **%17**k ez du lanaldi osoko enplegurik. Emakume landunen ia **%28** dira. Gizonen kasuan, **%8,1**ak egin du lan lanaldi partzialarekin (krisiaz geroztik handitu da kontratazio mota hau gizonen artean).

-Lanaldi partzialeko enpleguaren **%75** baino gehiago emakumeentzat. Haietatik erdiek (**%53**) diote lanaldi osoan aritu nahiko luketela.

#### Soldaten krisia bere horretan

Soldaten erreformetan enplegua erraz eta merke suntsitzeko neurriak hartu izanaren ondorioak pairatzen ari gara:

-2008/2017 soldatak balioa **%12** murriztu Estatu espainiarrean.

-Hego Euskal Herrian joera berdina da: Nafarroan eros ahalemena **%8,6** jaitsi da, EAEn **%8,3**.

-Egoera are okerrago emakumeentzat: soldata txikiak dira erasotuenak. Arrakala **7.510** eurokoa.

Hego Euskal Herrian, emakumeok urtean gizonak baino **%24,1** gutxiago irabazten dugu. Soldatak parekatu nahi baditugu emakumeok **%31,8** gehiago irabazi behar dugu. Enplegu partzialaren **%80** emakumeon eskutan dago. Behin behineko kontratuekin lan egiten dutenen soldatak txikiagoak dira (batzbeste **%32**). Emakumeen artean behin behinekotasuna handiagoa da.



## Egoera soziala

### POBREZIAREN GORAKADA

#### Nafarroan

Biztanleen ia **%22** pobrezia arriskuan (NASTAT). Pobreziaren muga **895** eurotan dago han. Pobrezia arriskua emakumeen artean **%23**koa, gizonen artean **%21**ekoa.

Egoera bereziki larrian dira:

- **Pentsiodunak**. Bereziki 65 urtetik gorako emakumeak eta gazteria (azken hauen arrisku maila **%29,4** arte handitzen da 16 urte baino gutxiagokoen artean pertsona bakarreko familietan arriskua biderkatu egiten delako).

- **Migranteak**. Europar Batasunetik kanpo jaio diren pertsonen artean, pobrezia arriskuan bizi dira **%67**. Eta eremu batzuetan pobrezia nabarmen handiago da: Tuteran aldean **%30,7**, Ebro ibai bazterrean **%29.2**, Arga eta Aragon ibaibazterretan **27.9%**.

- **Umeak, gazte eta nerabeak**. 100 biztanletatik 11 bizi dira pobrezia larrian (**597 euro** baino gutxiago), kasu honetan ere, umeak-nerabeak-gazteak dira kaltetuenak. 16 urte baino gutxiago dituztenen artean, **%17,6** bizi dira pobrezian. Jatorriari begiratzen badiogu, Estatutik kanpo jaio direnen **%32** eta naziotasun espainiarra ez dutenen **%38,4** pobrezian bizi dira.

#### Euskal Autonomia Erkidegoan

Pobreziak gora egin du hemen ere. Azken 2 urtean, Gobernuaren arabera hazkunde ekonomikoko urteak, **%9** igo pobrezia mugan dagoen biztanleria (**895,66** eurotan dago muga, eta —Eurostaten metodoa jarraituz— **382.300** pertsona bizi dira muga horren azpian). 2016an baino **31.650** pertsona gehiago dira, multzoa **%9** hazi da bi urtean.

2008tik **%20** igo arriskuan den jendea. EAEko biztanleen **%5** egoera larrian da, gainera. 2008an baino **43.200** pertsona gehiago dira.

Testuinguru honetan egingo da DSBEren erreforma eta baldintza hauetan hasi dira moteltze ekonomikoaren arriskuaz ohartarazten.